



## **AKTA**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko urtarrilaren 16an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hamaseian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

- 1.-** Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2017ko abenduaren 12an buruturiko saioari dagokion akta.
- 2.-** M<sup>a</sup> C.O.O.k, Zestoako Udalak onarturik duen gazte lokalen inguruko ordenantza berrikustea eskatzen du. Jakinarazi zaio onartu berri den Gazte Lokalen gaineko Bizikidetzaren arautzeko ordenantza aldatzea ez duela aurreikusten Udalak.
- 3.-** N.O. eta K. A., Gurutzeaga kalea 3ko lokalean gazteak baimenik gabe ibiltzen direla-eta, bizilagunek aurkeztu duten salaketa honen berri emango zaio lokalaren jabeari eta lokala itxirik mantendu behar duela gogoraraziko zaio. Alkatetzaren ebazpena urratzen badu, neurriak hartuko ditu Udal honek.
- 4.-** J. M. M., Lizarraitz auzunea 4ko atarian bi motorrek aparkatzen dutela-eta, jakinaraztea Lizarraitz auzunearen ondoko urbanizazioaren jabetza (pribatua edo publikoa) arazoak sortu izan dituen gaia izan dela, Zestoako Udalak ez baititu bertako urbanizazio lanak inoiz jaso. Jabego Elkarteak egin behar du egoki deritzona, motorren jabeek jakinaraziz hor ezin dela aparkatu.
- 5.-** K. I. E., Zesareo Diaz kalea 2 behean egitekoak ziren obrak bertan behera uzten dituztela jakinarazten du. Era berean, obregatik ordaindutako udal tasa itzultzea eskatzen du. Erabakitzen da ontzat ematea obrak bertan behera uztearen jakinarazpena eta ordaindutako tasaren itzulketa egitea.
- 6.-** S.U.A., Narrondo auzoan kamioiek gaizki aparkatzen dutela eta marra horiak pintatzea edo aparkalekuak erregulatzea eskatzen du. Erabakitzen da hurrengo Hirigintza Batzordean aztertzea gaia.
- 7.-** M.J.I., Toribio Altzaga kaletik Idiazpi auzunera doan bidea ibilgailuentzat norabide batekoa ala bestekoa da egunaren arabera. Ia inork ez dituela seinaleak errespetatzen dio, eta bide horretan asteko egun guztietarako norabide bakarra finkatzea eskatzen du. Erabakitzen da ontzat ematea eginiko eskaera, baldintza batzuen arabera.
- 8.-** J.A.A.ri, Oikiako errepideko Bedua-txiki baserriko teilatua eraberritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.
- 9.-** Gurutzeaga kalea 3ko jabeekideei, eraikin horretako fatxada konpontzeko eta birgaitzeko obretako udal baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.
- 10.-** Bidezarreko bizilagunak, Zestoako Ikastetxeak eta San Juan Fundazioak, Zestoako San Juan auzoan aparkalekuekin arazo larri bat dutela diote. Arazoaren garrantziaz eta larritasunaz arduraturik, aparkaleku beharrei erantzun egoki bat emateko eskatzen diote Udalari. Horretarako, San Juan Fundazioak egoitzaren atze aldean dituen lurretan aparkaleku publiko bat egitea proposatzen dute. Erabakitzen da eginiko proposamena

kontutan hartzea eta gaia bere osotasunean lantzea.

**11.-** F.A. Sari errepide ondoko estalkiko isurialdea aldatzeko obretako udal ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

**12.-** E.Jko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, Azkola S.A.ren jarduerari dagozkion neurri zuzentzaileen ezarpenari buruzko txostena igortzen du eta erabakitzen da Azkola S.A.ri jarduera baimenaren onarpena igortzea, baimenean agertzen diren neurri zuzentzaileak gehituz.

**13.-** X.K , Akoa bidea errepidearen egoera Txapei baserri inguruan ez dela egokia dio, eta erabakitzen da dirulaguntza deialdia ateratzen denean, bertan aurkeztea.

**14.-** Itxurtxo Ibañarrietako Auzo Elkarteak, 2017ko azaroaren 23an egindako bileraren akta aurkezten dute, Hirigintza Batzordeak kontutan hartzeko. Erabakitzen da auzoaren izena daramaten bi seinale jartzea sarreretan, lokal publikoa egiteko proiekturako dirulaguntza eskatzea, bide publikoetan zama mugatua dutela gogoraraztea jardueretako titularrei, bi bidetan farolak jartzea aztertzea, ermita aurrealdean nekazaritza makinak ezin direla utzi jakinaraztea jabeei, eta kantera inguruko pitzadurak estalita daudela jakinaraztea.

**2.14.-** E.H.A.E.O., jakinarazten du Uztapide plaza 4 eraikineko igogailua zero kotara jeisteko obretako zuzendaritza eramaten zuen arkitektoak uko egin diola obra zuzendaritzari. Erabakitzen da zuzendaritza berria izendatu bitartean, Uztapide plaza 4ko lanak bertan behera utzi beharko direla.

**2.15)** X.A.Y., Zestoako Parrokiko erlojua konpontzeko proiektua uzten duela adierazten du. Era berean, erlojua Udalaren esku geratzen dela dio, Lasaoko lokalean dagoena. Erabakitzen da adierazpenaren berri ematea.

**2.16)** Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreko Departamentuak, Aizarnako 5.poligonoko 8.lursailean oilo erruleentzat nabea eraikitzeko, udal honek egindako kontsultari buruzko aldeko txostena igortzen du. Erabakitzen da J.A.G.ri aipaturiko obra egiteko udal baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

**2.17.-** Ura Ur Agentziak, Zestoako AP-8 Zumaiako lotunean Larrondo ibaian drainatze lanen errefortzua gauzatzeari buruzko ebazpena igortzen du. Ebazpenaren berri eman da.

**2.18.-** Ingenieria Eguzkiak, B. S.L.ren izenean, Sansineneako nabean arropa gordetzeko biltegira zuzendutako jarduera klasifikatuaren proiektua aurkezten du. Erabakitzen da hurrengo Hirigintza batzordean aztertzea gaia.

**2.19)** A.I.Z.ri, hainbat baimen direla-eta, erabakitzen da Urkizu Nabeko etxebizitzaren lehen erabilera baimena emateko honako dokumentazioa eskatzea.

## **Batzorde informatiboen bileren akten onarpena**

2017ko abenduaren 13an, Gazteria eta Kirol Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2017ko abenduaren 14an, Kultura eta Euskara batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2017ko abenduaren 21ean, Ogasun batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

**Alkatetza ebazpenak**- Honako Ebazpenen berri eman da:

- \* 114 zk, Logopedia zerbitzua kontratatzeko, kudeatzeko eta finantzatzeko, Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako udalek 2014ko urtarrilaren 1ean lankidetzan hitzarmena.
- \* 115 zk, 2017ko Lan Eskaintza Publikoa onartzeko hasierako ebazpena
- \* 116 zk, Construcciones y Rehabilitaciones del Urola S.L.k, Zesareo Diaz kalea 2 behean horma egin eta zorua egokitzeko lanak egiteko udal baimena.
- \* 117 zk, Zestoako Udalak, Garbitzaile plaza betetzeko oinarriak lantzea aginduz
- \* 118 zk, J.U. K.ri, Portale kalea 7 4B etxebizitzako hiru leiho aldatzeko obretako udal baimena ematen zaio.
- \* 119 zk, Kontratazio espedienteari atxikitzeko prozedura onartzea, itzulpen eta interpretazio zerbitzua, Gipuzkoako Foru Aldundiak ireki duena.
- \* 1 zk, Zubimusu kalea 3 4.ezkerra etxebizitzako sukaldea eta bainugela eraberritzeko obretako udal baimena ematen da.

### **Elkarrerantzun ofizialak**

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, Zener Plus S.L.k eskatuta AP-8ko 48,5 puntu kilometrikoan kanalizazioa jartzeko eta azpiko pasabidearekin gurutzatzeko baimena igortzen du.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, GI-3263ko 2,955 puntu kilometrikoan (Endoian) farolak jartzeko baimena igortzen du.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, Valentin Lopetegik eskatuta GI-3273ko 0,400 puntu kilometrikoan, zuhaitzak mozteko galtzada osoa une batzuetan ixteko baimena igortzen du.
- Azpeitiko Udalak, Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako udalerrietan kokaturiko ikastetxe desberdinetako lehen hezkuntzako ikasleei logopedia zerbitzua eskaintzeko kontratuaren esleipena.
- Elkartuk Gipuzkoako Lurraldeko udalerrien konpromisoa berritzeko irisgarritasun unibertsala sustatzeko lankidetzan, esperientzia eta aholkularitza eskaintzen dute.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, AT Sistema berriari buruzko informazioa igortzen du.
- Udalbiltza Partzuergoak, Zestoako Udaleko 2018ko kuota 10.000 eurokoa izango dela oroitarazten du.
- Escuderia Lagun-arteak, 2018ko uztailaren 14an izango den XV.Azpeitiko Rallyrako dirulaguntza eskatzen du.

**Galdera eta erreguak.** Ez da egon

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

Idazkariak,

O.e

Alkateak,